


Mikeldiko Idoloa Idolo de Mikeldi



Inventarioaren zenb: 205 / N° inventario: 205

Kronologia: II. Burdin Aroa (K.a. V. eta I. Mendeen bitartean)
Cronología: II Edad del Hierro (SS. V-I a.C.)

Jatorria: Iurreta (Bizkaia) / Procedencia: Iurreta (Bizkaia)


Mikeldiko Idoloa" izenaz ezagutzen den eskultura lurretako desagertutako Mikeldi ermitan (Bizkaian) aurkitu zen. Originala Euskal Museoko klaustroan dago ikausgai. Idoloari buruzko lehen berria Gonzalo de Otalorak eman zuen XVII.mendean. Gonzalo de Otalorak honako hau zioen Durangoko Merindadeko antzinatei buruzko komentarioan:

"...ikusgarrienak Mikeldi izeneko Durango herriko ermita batean daudenak dira; bertan dago eta ikus daiteke harri handi bat, muntrotusa formaz zein tamainaz, Adaba edo Errrinozero itxurakoa, globo eskerga du hanka artean, eta globoan landuta, karaktere bikainak eta ulerterzinak eta, bukatze-ko, galburu bat lurrean sartuta. Haize agerian dago (higatuta egotearen arrazoa). Ez dago berari buruzko oritzapenik, baina antzina-koko idolotzat jotzen da."


L a escultura conocida como "Idolo de Mikeldi", cuyo original se exhibe en el claustro del Museo, se encontró en la desaparecida ermita de San Vicente de Mikeldi en Iurreta (Bizkaia) y la primera noticia que sobre él se tiene es la proporcionada por Gonzalo de Otalora en el s. XVII cuando, al comentar las antigüedades de la Merindad de Durango, dice:

"... las más vistosas son en una ermita de la villa de Durango, llamada Miqueldi; se halla y ve una gran piedra, así monstruosa en la forma, como en el tamaño, cuya hechura es una Abba-dá o Rinoceronte, con un globo grandísimo entre los pies, y en él tallados caracteres notables, y no entendidos, y por remate una espiga dentro de la tierra. Está en campo raso (causa de mostrarse deslavado). No se tiene memoria de él, si bien corre por Idolo antiguo".






GUISENDOKO ZEZENAK (EL TIEMBLO, ÁVILA)
TOROS DE GUISENDO (EL TIEMBLO, ÁVILA)




GUISENDOKO ZEZENAK (EL TIEMBLO, ÁVILA)
TOROS DE GUISENDO (EL TIEMBLO, ÁVILA)



GUISENDOKO ZEZENAK (EL TIEMBLO, ÁVILA)
TOROS DE GUISENDO (EL TIEMBLO, ÁVILA)



SALAMANCA



VILLARDEGUA DE RIBERA (ZAMORA)

Mikeldiko idoloari buruzko geroagoko berrieik (XVIII.mendea) ez diote ezer Otalorak aipatzen duen idazkunaz.

Eskulturak lurperatuta egon behar izan zuen, partzialki bada ere, 1864an, J.E. Delmas eta A. Trueba jaunek eskatuta, lurpetik atera eta zutik jarri zuten arte.

Dirudienez, berriz ere partzialki lurperatuta geratu zen, zeren 1896an berriro lurpetik atera eta Mikeldiko San Bizente ermitaren ondoan ipini zuten eta bertan egon zen 1920an Museora eraman zuten arte.


Eskultura harearrizkoa da, Durangoko inguruetakoa, bloke bakarrean eginda dago eta animali baten forma eskematikoa erakusten du, aketza batena, alegia. Animaliaren hanken artean eta sabelaren azpian disko bat dago txertatuta. Bizkarrean eta eskuineko alboan zulaketa batzuk agertzen dira, "kazoltxoak", ugariak antzeko eskulturetan. Zukalera horiei esanahi magiko/erlijotsua ohi zaie.

II. Burdin Aroan datatuta dago (K.a V. eta I. mendeen bitartean) eta Mesetako zezenen eta aketzen eskultura zoomorfoekin erlazionatu izen dute. Mesetako eremua gaur egungo Espainiako Zamora, Salamanca, Avila, Segovia, Cáceres, Toledo, Ourense eta Pontevedra probintziek eta Portugaleko Tras-os-Montes eta Beira Alta herrialdeek osatzen dute. Eremu horretan 300 ale aurkitu izan dira, gehienak Avilako eta Salamancako probintzieta. Eremu horretatik kanpo, Mikeldiko Idoloa eta Tortasan (Tarragona) aurkitutako beste ale baino ez dira ezagutzen. Mikeldiko Idoloak besteekiko duen desberdintasuna hanka arteko diskoa da.


Eskultura zoomorko horietako gehien-gehienak mukulu biribileko eskulturak dira, granitzoz landutakoak eta animaliaren (zezenak eta aketza batez ere) gorputz osoa irudikatzen dute, beti zutik eta idulki baten gainean kokatuta. Normalean oso forma simpleak dituzten arren, eskultura askotan ezaugarri anatomikoak irudikatuta daude.

Eskultura bitxi horien esanahiari eta funtzioari buruz zein kronologiarri buruz, interpretazioa desberdinak egin izan dira antzinatik. Horrela, esan izan da bideetako mugarriak adierazteko izan zitezkeela, abereak zaintzeko funtzi magikoa zutela edota hilobi-monumentuak zirela.

Eskulturok azterlan ugariren helburu izan dira eta autoreek hainbat motatan sailkatu izan dituzte, ezaugarri formalen, tratamendu plastiko-en edota neurrien arabera (20 cm.eta 2 m.tik gora bitartean) eta autoreok kronologia zehazten ere saiatu izan dira. Horrela, badirudi, alerik handienak eta joera naturalistagoa dutenak zaharrenak direla, K.a. IV eta II.mendeen bitartekoak, alegia. Forma geometrikoagoak dituztenak, eskematikoagoak eta txikiagoak direnak, ordea, K.a II.mendearen



LOCALIZACION ACTUAL: TORO (ZAMORA)



SOLOSANCHO (AVILA)

Nada dicen sin embargo sobre la inscripción que menciona Otalora, las noticias que en el s.XVIII hacen mención al Mikeldi.

La escultura debió quedar parcialmente sepultada hasta que en 1864, a instancias de los Srs. J. E. Delmas y A. Trueba, fue desenterrada y colocada en posición vertical.

Al parecer volvió a quedar parcialmente enterrada y no fue hasta 1896 cuando se recuperó definitivamente y fue colocada junto a la ermita de San Vicente de Mikeldi, lugar en el que permaneció hasta su traslado al Museo en el año 1920.

El ídolo de Mikeldi es una escultura en piedra arenisca de los alrededores de Durango, realizada en un único bloque, que representa de forma esquemática a un animal, verraco, entre cuyas patas y bajo cuyo vientre aprisiona un disco. En el dorso y flanco derecho, la pieza presenta una serie de pequeñas oquedades, "cazoletas", frecuentes en este tipo de esculturas y a las que se les ha atribuido un carácter mágico-religioso.

Datado en la II Edad del Hierro (ss. V - I a.C), al Mikeldi se le relaciona con las esculturas zoomorfas de toros y verracos de la meseta castellana. En este área, que comprende las actuales provincias de Zamora, Salamanca, Ávila, Segovia, Cáceres, Toledo, Ourense, Pontevedra y las regiones portuguesas de Tras-os-Montes y Beira Alta, se localizan más de 300 ejemplares, dándose la mayor concentración en las provincias de Ávila y Salamanca. Fuera de este área únicamente se conocen el ídolo de Mikeldi y otro ejemplar en Tortosa (Tarragona). El Mikeldi se diferencia de ellas por la presencia del disco entre sus patas.

La mayor parte de estas esculturas zoomorfas son esculturas de bulto redondo, labradas en granito, en las que se representa a un animal (toro y cerdo fundamentalmente) de cuerpo entero, siempre en pie y sobre un pedestal. De gran simplicidad en sus formas, son bastantes aquellas en las que se representan las características anatómicas del animal representado.

Sobre el significado, función y cronología de estas curiosas esculturas, desde antiguo se han dado diversas interpretaciones y así, se ha apuntado que bien podían ser indicadores de límites o de hitos camineros, bien podían tener una función mágica como protectoras del ganado, o bien podían tratarse de monumentos funerarios.

En función de las características formales, tratamiento plástico y dimensiones de estas piezas (desde 20 cm. a más de 2 m.), distintos autores han establecido tipologías y han tratado de establecer una cronología para cada una de ellas. Al parecer los ejemplares más antiguos,



MUELAS DEL PAN (ZAMORA)
MUSEO DE ZAMORA



VILLALAZÁN (ZAMORA)
MUSEO DE ZAMORA



VILLALCAMPO (ZAMORA)
MUSEO DE ZAMORA




GALLEGOS DE ARGANÁN (SALAMANCA)
MUSEO DE BELLAS ARTES DE SALAMANCA



LOCALIZACIÓN ACTUAL: AVILA



MADRIGALEJO (CACERES)
MUSEO DE BELLAS ARTES DE CÁCERES



LAS COGOTAS (CARDEÑOSA, AVILA)
LOCALIZACION ACTUAL: AVILA



CHAMARTÍN DE LA SIERRA (AVILA)

erdialdea edo bukaera eta K.a I.mendea bitartekoak dira eta hortik aurrekoek azen horien antzeko ezaugarriak dituzte.

Eskultura zoomorfo horietako gehienak testuinguru arkeologikotik atagertu diren arren, ale batzuk testuinguru zehatz baten barruan kokatu izan dira. Aurkikuntzak egin diren lekuak datuak kontuan hartuta, badiarudi esanahi anitz izan zituztela.

Eskultura horietako batzuk, dirudienez, hileta-izaera dute argi eta garbi; interpretazio hori eskultura batzuek ditutten hilobi-idazkunek bermatzen dute. Zenbait autorerent iritziz, lehendik zeuden eskulturei, ondorengo garaietan, erromanzazioa guztiz hedatuta zegoen garaietan, alegia, idazkunak erantsi zitzazkien eta hilobi-monumentu gisa erabili izan ziren. Horrek ez du esan nahi, ordea lehenagoko garaietan era hilobi-monumentu gisa erabili izan ez zirenik.

Beste eskultura batzuek, abereak zaintzeko eta ugaltzea ziurtatzeko helburu magikoa izan zutela dirudi. Zenbait kastroetarako sarbideen alboan, abereak biltzeko leku gisa interpretatu diren esparruetan agertutako ale batzuek aipatutako erabilera izan zutela esan izan da.

Eskulturen talderik handiena, ezagutzen diren eskulturen bi heren, gutxi gorabehera, neguko larre-tokiak dauden eremuetan aurkitu izan dira, ur-ibilguen alboan eta ikuspen ona dagoen lekuetan. Horren arabera, dirudienez, kokaguneak patroi baten arabera ezarrita daude, beraz, arrazoizkoa dirudi, eskulturok mugariak izan zirela pentsatzea, zeren larre-tokiak baliabide garrantzitsua baitziren nekazarientzak.



MIKELDI IURRETAN (BIZKAIA)
EL MIKELDI EN IURRETA (BIZKAIA)

ss. IV y II a.C., son los más grandes y los que presentan un tratamiento más naturalista, mientras que los que presentan formas más geométricas, mayor esquematismo y menores dimensiones, se fechan entre mediados o finales del s.II a.C. y el s. I a.C., conservando similares características hasta fechas más avanzadas.

Si bien la mayor parte de estas esculturas zoomorfas han aparecido fuera de contexto arqueológico, los datos aportados por aquellos ejemplares localizados dentro de contexto permiten considerar que tuvieron más de un significado.

De este modo, al menos un grupo de ellas parece haber tenido un claro carácter funerario, interpretación que viene además avalada por el hecho de que algunos ejemplares presentan inscripciones funerarias. A este respecto, sin embargo, algunos autores parecen inclinarse por la posibilidad de que esculturas ya existentes fueran utilizadas como monumento funerario en épocas posteriores, en un momento ya plenamente romanizado en el que se añadirían las inscripciones, sin negar por ello un posible carácter funerario previo.

Un segundo grupo parece responder a una finalidad mágica, protectora del ganado y aseguradora de su reproducción. Se ha argumentado para ello que algunos ejemplares aparecidos en recintos interpretados como encerraderos de ganado, junto a los accesos de algunos castros, etc. pudieron tener este carácter apotropaico.

El último grupo y el más numeroso, aproximadamente dos tercios de las esculturas conocidas, se localiza en zonas de pastos de invierno, junto a cursos de agua y en lugares de buena visibilidad, lo que parece descartar una localización exenta de patrón y permite considerar que estas esculturas pudieron ser hitos señalizadores de un recurso tan importante para una población ganadera como los pastos.



EUSKAL ARKEOLOGIA, ETNOGRAFIA ETA KONDAIRA MUSEOA
MUSEO ARQUEOLOGICO, ETNOGRAFICO E HISTORICO VASCO

Miguel de Unamuno Plaza, 4 ■ 48006 BILBAO ■ Teléfono 94 415 54 23 ■ Fax 94 479 06 08
<http://euskal-museoa.org> ■ museoa@euskal-museoa.org